



Gipuzkoako enpresa sarearen aukerak, balio diferentziala eta iraunkortasuna sustatzeko programa.

IX.ERANSKINA: MERKATARITZA

Urtea :2021 | Ekonomia Sustapena

DESKRIBAPENA

Gipuzkoako merkataritza-sektorean jarduteko helburua duten erakundeei laguntzea, Gipuzkoako Lurraldeko merkataritza mantentzeko eta berritzeko, eta COVID-19ak eragindako krisiaren aurrean hartutako neurriek eragindako nahasmendu sozio-ekonomikoari aurre egiteko jarduerak garatzen dituztenei.

ENTITATE ONURADUNAK

Gipuzkoan kokatutako merkatarien elkarte edo federazioak (merkatariek bakarrik osatutakoak edo mistoak, hau da, beste profesional mota batzuk egotea onartzen dutenak), baldin eta haien jarduera eremua lurraldekoa bada (Gipuzkoa), eta Gipuzkoako Bazkundera.

DIRULAGUNTZEN XEDE DIREN JARDUERAK

Diruz lagundu daitezkeen jarduerak izango dira COVID-19ak eragindako krisiaren ondorioak gainditzera bideratutako merkataritza sektoreko estrategiak eta planak birdefinitzea sustatzen duten ekimenak.

DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN KOSTUAK

Diruz lagungarriak izango dira entitate eskatzaileak aurkezten duen aurrekontu banakatu eta xehatuan jasotako kostuak, jardueraren garapenari zalantzarik gabe lotuta daudenean. (Ikusi diruz lagungarriak diren kostuak I.eranskina - 12.oinarria eta IX.eranskina - 5.oinarria).



DIRULAGUNTZEN ZENBATEKOA

Dirulaguntzak kostu hautagarrien % 95 izango dira.

EMATEKO PROZEDURA

Laguntza emateko prozedura, lehiaketa bidezkoa izango da, deialdi eta hautapen prozedura bakar baten bitartez.

BATERAGARRITASUNA ETA BATERAEZINTASUNA

Dirulaguntza hauek ez dira bateragarriak helburu bererako beste dirulaguntza, sarrera edo baliabiderekin, baita edozein administrazio edo erakunde publiko nahiz pribatu nazional, europar edo nazioartekotik etortzen direnekin ere.

BETETZEKO EPEAK

Eskaerak aurkezteko epea: 2021eko uztailaren 19an, goizeko 12:00etan amaituko da.

Jarduerak hasteko epea: 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera.

Proiektuen exekuzio data: 2021eko azaroaren 30a.

Proiektuak justifikatzeko data: 2021eko abenduaren 14a.

ARAUDI APLIKAGARRIA

Gipuzkoako enpresa sarearen aukerak, balio diferentziala eta iraunkortasuna sustatzeko programaren 2021eko oinarri arautzaileak eta deialdia: IX.ERANSKINA - Gipuzkoako merkataritza-sektorearen sostengu erresilientea, COVID19k sortutako krisiaren aurre egiteko (2021eko ekainaren 15eko Diputatuen Kontseiluaren erabakia. [GAO 114 zk. 2021eko ekainaren 18an](#))

ESKAERA EGITEKO URRATSAK

- Informazioa eta dokumentuak
<https://www.gipuzkoa.eus/eu/web/ekonomia/programak-eta-laguntzak/lehiakortasuna/merkataritza>
- Eskaera kudeatzeko aplikatiboa
<http://sustapena.gipuzkoa.eus/kudeaketa>



**Gipuzkoako
Foru Aldundia**
Ekonomia Sustapeneko,
Turismoko eta Landa
Ingurunekeo Departamentua

EDOZEIN ZALANTZA IZANEZ GERO, KONTSULTATU

EKONOMIA SUSTAPENeko ZERBITZUA

Kudeaketa administratiboa: 943.113981

Kudeaketa teknikoa: 943.112217

sustapena.lehiakortasuna@gipuzkoa.eus